



Matematika

Lehen Hezkuntzako 5. mailarako Matematika liburua
Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren
Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo**
Uriarteren eta **Antonio Brandi Fernández** en zuzendaritzapean
sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean
honako talde honek esku hartu du:

TESTUA ETA EDIZIOA

Pilar García Atance

Magdalena Rodríguez Pecharromán

Carlos Pérez Saavedra

IRUDIAK

José Luis Rufes Zazo

Cristina Losantos Sistach

José María Valera Estévez

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea Llona

José Antonio Almodóvar Herráiz

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte

Domingo Sánchez Figueroa

LEHEN HEZKUNTZAKO ZUZENDARITZA

ETA EDIZIO-KOORDINAZIOA

Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Unitatea			Informazioa eta jarduerak		
1	Zenbaki arruntak	6	- Milioia. Zazpi zifrako zenbakiak - Zazpi zifra baino gehiagoko zenbakiak	Hurbilketak	
2	Zenbaki arrunten arteko batuketa, kenketa eta biderketa	20	- Zenbait zifrako zenbakiez biderkatzea - Biderketaren banatze-propietatea	- Eragiketa konbinatuak - Iritzirako kalkuluak - Berreketak	Informazioaren trataera. Hiru ezaugarriko barra-grafikoak
3	Zenbaki arrunten arteko zatiketa	40	- Bi zifrako zatitzailea duten zatiketak - Hiru zifrako zatitzailea duten zatiketak	- Aldaketak zatiketa baten gaitan - Zenbait eragiketako problemak	
4	Multiploak eta zatitzaileak	56	- Multiploak eta zatitzaileak - Zatigarritasun-irizpideak	- Zatitzaile guztiak kalkulatzeko - Zenbaki lehenak eta konposatuak	Informazioaren trataera. Hiru ezaugarriko barra-grafikoak
5	Zatikiak. Zatikien arteko batuketa eta kenketa	72	- Zatikiak - Zenbaki baten zatikia	- Zatikia zatiketa gisa - Izendatzaile bereko zatikien arteko batuketa eta kenketa	
HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA					
6	Zatiki baliokideak. Zatikiak alderatzea	88	- Zatiki baliokideak - Zenbaki mistoak	- Zatikiak izendatzaile beraz adieraztea - Zatikiak alderatzea	
7	Zenbaki hamartarrak. Hamartarren arteko batuketa eta kenketa	104	- Unitate hamartarrak - Zenbaki hamartarrak - Zenbaki hamartarrak alderatzea	- Hamartarren arteko batuketa eta kenketa - Hurbilketak eta iritzirako kalkuluak	Informazioaren trataera. Piktogramak
8	Zenbaki hamartarren arteko biderketa eta zatiketa	124	- Zenbaki hamartarren arteko biderketa - Zenbaki arruntak hamartarrez zatitzea	- Hamartarrak hamartarrez zatitzea - Zatidurak hurbiltzea	
9	Zatiki hamartarrak. Ehunekoak	140	- Zatiki hamartarrak - Ehunekoak	Ehuneko-problema	Informazioaren trataera. Piktogramak
10	Luzera, edukiera eta masa	156	- Luzera-unitateen arteko erlazioak - Edukiera-unitateen arteko erlazioak	Masa-unitateen arteko erlazioak	
HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA					
11	Azalera	172	- Azalera, unitatetzat laukia hartuta - Metro koadroa eta haren azpimultiploak	Metro koadroa eta haren multiploak	
12	Sistema hirurogeitarra	186	- Erlojua - Orduak, minutuak eta segundoak	- Angeluen neurri-unitateak - Batuketa eta kenketa sistema hirurogeitarrean	Informazioaren trataera. Koordinatu kartesiarrak
13	Irudi lauak	204	- Poligonoen sailkapena - Triangeluen eta lau-aldekoen sailkapena - Zirkunferentzia eta zirkulua	- Simetria eta translazioa - Antzekotasuna. Sarrera	
14	Irudi lauen perimetroa eta azalera	222	- Oinarria eta altuera - Laukizuzenaren eta triangeluaren azalera	- Zirkunferentziaren luzera. Zirkuluaren azalera - Irudi konposatuaren azalera	Informazioaren trataera. Sektore-grafikoak
15	Probabilitatea eta estatistika	240	- Aukera gehiago eta aukera gutxiago - Probabilitatea	Batez bestekoa	
HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA					
BA OTE DAKIZU?			Erromatar zenbakiak. Angelu motak. Triangelu baten eta		

Problemak ebaztea	Buruzko kalkulua	Egiten jakin
- Enuntziatua eta ebazpena lotzea - Problema bat ebazteko urratsak	- Hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak batzea - Hamarrekoen, ehunekoen eta milakoen kenketak egitea	Datu historikoak aztertzea
- Zer kalkulatu dugun azaltzea - Testu batean eta grafiko batean datuak bilatzea	2 zifrako zenbakiei 11, 21..., 12, 13... batzea 2 zifrako zenbakiei 9, 19..., 18, 17... batzea	Bidaia bat planifikatzea
- Enuntziatu batetik ondorioak ateratzea - Eragiketa kopurua eta mota zehaztea	2 zifrako zenbakiei 11, 21..., 12, 13... kentzea 2 zifrako zenbakiei 9, 19..., 18, 17... kentzea	Asteko zer egunetan jaio zinen kalkulatzea
- Informazioak oinarri hartuta, taulak egitea - Taula batean eta grafiko batean datuak bilatzea	3 zifrako zenbakiei 101, 201..., 102, 103... batzea 3 zifrako zenbakiei 99, 199..., 98, 97... batzea	Kode sekretuak deszifratzea
- Egoera baten adierazpen grafikoa zehaztea - Datuak grafikoki adieraztea	3 zifrako zenbakiei 101, 201..., 102, 103... kentzea 3 zifrako zenbakiei 99, 199..., 98, 97... kentzea	Eskolan baratze bat diseinatzea
- Enuntziatuak osatzea - Egoera adieraztea	10ez, 100ez eta 1.000z biderkatzea - Hamarrekoen, ehunekoen eta milakoen biderkatzea	Zenbait hondartzatako itsasaldiak aztertzea
- Datuak aldatzea - Arau bat bilatzea	- Hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak 10ez, 100ez eta 1.000z zatitzea - Hamarrekoen, ehunekoen edo milakoen zatitzea	Atletismoko errekor bat aztertzea
- Ebazpenetik datuak lortzea - Saiakuntza eta errorea	3 zenbaki batzea, haietako biren batura ehuneko bat dela	Telefono-faktura ulertzea
- Sobera dauden datuak hauteman eta haiekin problema bat idaztea - Amaieratik hastea	- Zeroz amaitutako 2 zenbaki biderkatzea 3 zenbaki biderkatzea, haietako biren biderkadura hamarreko bat edo ehuneko bat izanik	Zenbait produkturen BEZa kalkulatzea
- Taula bat edo grafiko bat oinarri hartuta galderak idaztea - Egoera grafikoki adieraztea	- Zenbaki hamartarrak 10ez, 100ez edo 1.000z biderkatzea 10ez, 100ez edo 1.000z zatitzea	Animalia batek beste planeta batzuetan duen pisua kalkulatzea
- Kalkulu batzuk eginez erantzuten den galdera idaztea - Taula bat egitea	- Hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak 2z zatitzea - Zifra guztiak bikoitiak dituzten zenbakiak 2z zatitzea	Etxebizitza baten planoa aztertzea
- Ebatz daitezkeen galderak asmatzea - Marrazki bat egitea	- Zifra guztiak bikoitiak ez dituzten zenbaki bikoitiak 2z zatitzea - Zenbakiak 20z zatitzea	Herrialdeen arteko ordu-aldeak kalkulatzea
- Emaitza zuzena aukeratzea - Problema ebaztuta irudikatzea	- Zenbakiak 5ez eta 50ez biderkatzea - Zenbakiak 5ez eta 50ez zatitzea	Logotipoak aztertzea
- Gutxi gorabeherako emaitza aurreratzea - Problema bat errazago ebazteko moduan adieraztea	- Zenbaki baten 1 zenbakitzaileko zatikia kalkulatzea - Zenbaki baten zatikia kalkulatzea, zenbakitzailea 1 baino handiagoa duena	Benetako objektuen azalerak kalkulatzea
- Zenbait emaitza zehaztea - Zuhaitz-diagrama bat egitea	- Zenbaki baten % 10 kalkulatzea - Zenbaki baten % 9, % 8... kalkulatzea	Telebistako ikus-entzule kopuruak kalkulatzea


lau-aldeko baten angeluen batura. Zuzenen eta zirkunferentzien kokapen erlatiboak. Poliedroak eta gorputz biribilak.

Honelakoa da zure liburua


Liburu honek 15 unitate ditu, 3 hiruhilekotan banatuta.

Hiruhileko bakoitzean, hauek ere badaude:

- Informazioaren trataerako 4 orrialde (grafiko motarik erabilienak aztertzeke).
- Hiruhilekoaren berrikusketako 2 orrialde (hiruhilekoko edukirik garrantzitsuenak lantzeko).



Unitate bakoitza honela hasten da:




Irudiak, testuak eta horri buruzko galderek matematika zer egoeratan erabili beharko duzun erakutsiko dizute.

Unitatearen amaieran, benetako ataza bat egin beharko duzu.

Atal horretan, unitatea hasteko behar duzun guztia gogoratuko duzu.

Edukiak hiru edo lau orrialde bikoitzetan lantzen dira:



Azalpenak eta laburpenak ikasten eta berrikusten lagunduko dizute.

Jardueretan, adibideak eta laguntzak izango dituzu, hobeto ikas dezazun.

Ba ote dakizu? atalean erronkak ageri dira, gehiago ikas dezazun.

Problemei esker, ikasitakoa benetako egoeretan erabiliko duzu.

Buruzko kalkulua eta Arrazoiaketa landuko dituzu amaieran.

Ondoren, problemak nola ebazten diren lantzen da:

Ezkerreko orrialdean, problema baten atalak eta haien arteko erlazioak landuko dituzu.

Problemak ebaztea

Enuntziatua eta ebazpena lotzea

Zer ebazpen dagoiko problema bakoitzari? Idatziz emaitza.

A Joni 19 kromo falta zaitzako Koldok hainko hiru kromo izanleko. Koldok 20 kromo ditu. Zentbat kromo ditu Joni?

B Madalenak 20 pastelako 3 erretatu zituen. Azko beste 19 pastelatu zituen. Zentbat pastelatu ditu orain?

C Landenak 20 € dauka eta anakak 19 €. Amabak bi anak araban daukaten diruaren hirukoitza dauka. Zentbat euro dauka amabak?

► A problema ebazteko, 3. barietateko kalkulak egin behar dira.
Emaitza: Joni 41 kromo ditu, idatziz ebazpena zure koadernoan, eta B eta C problemen emaitzak ere bai.

1 Loto problema bakoitza bere emaitzarekin zure koadernoan eta idatziz emaitza.

A Andreak 84 arrosako zuzkan. Iuri baten arrosaz, 26 mutxu zituen, eta ondoren, 35 landatu. Zentbat arrosako dauka orain?

B Elkarre batetik 84 baskitxo ditu. 26 gonroak dira, 35 emakumeak eta gainerakoak haurrak. Zentbat baskitxo dira haurrak?

C Dendan, 18 urtekoen 84 zoro dauka, eta bakoitzak 35 gonzi eta 26 nodo ditu. Zentbat gonzi gehiago dago deno baino gutxiar?

2 Kopiatu eta osatu zure koadernoan.

Aurkaria	Zentbat	Hurungia
1.999.999		
4.500.099		
58.298.000		
123.000.999		
809.999.999		

3 Ordenatu, ikur egokia erabiliz.

Tekienetik handiena: 3.890.900, 23.890.900, 23.980.000, 32.000.000

Handienetik txikiena: 456.000.900, 69.999.999, 465.000.900, 456.100.000

4 Hurbildu zenbakia.

Unitate-mila handienara	Unitate-mila txikienara
6.789.402	874.691
2.900.050	342.784
73.900.290	8.947.642
91.500.189	8.718.620

5 Zer zenbaki du? Pentatze eta idatziz.

- Zapi zifra zenbaki handienara.
- Teki zifra zenbaki txikienara.
- Teki zifra zenbaki txikienara, bakar bat ere erabili gabe, eta dauen zenbaki handienara.
- Milikoiaren hurbildua 6.000.000 den zapi zifra zenbaki handienara.

Problema bat ebazteko urratsak

Zuruko funtzo baten estremaletarako, 1.500 samarra jerru ditute sagai. Gainera 389 samarra saldu dituzte, eta arnatxak, 450. Zentbat samarra geratzen dira salatzeko?

► Problema bat ebazteko, jarraitu urrats hauek:

- 1. Urtatu.**
Galdara ► Zentbat samarra geratzen dira salatzeko?
Datuak ► 1.500 samarra jerru dituzte sagai. Gainera 389 samarra saldu dituzte, eta arnatxak, 450.
- 2. Pentatu zer egin behar den.**
1. Gurtza zentbat samarra saldu diren kalkulatu behar da. Batzuek gurekin salduko samarra eta arnatxak saldukoak.
- 3. Kalkulatu.**
2. Kalkulatu zentbat samarra geratzen diren salatzeko. Kendu samarra gurtze salduko samarra.
1. 389 + 450 = 839 2. 1.500 - 839 = 661
Emaitza: 661 samarra geratzen dira salatzeko.
- 4. Egiaztatu.**
Berriaz egindako urrats eta eragileak gurtak.

Ebazi problemak, urrats egokiak jarraitu.

1 Ertzi baten 8ra maita dituden 25 adonkiz eta 12 maita dituden adonkiz bat dauka. Zentbat maita dauka gurtz biltzarra?

2 Kamen lodarrenda 58ra irabazten zuten lau saski zituen. Baina 13 irabazle bota ditu, horietatik zuzeneko. Zentbat irabazle geratu ditu?

3 Mirenek 168 kg madat sartu ditu 3 kg-ko zoroetan. Ondoren, zoroak kudeatzen sartu ditu, hura bakoitzan 6 zoro jarri. Zentbat kuba bete ditu?

4 Markelak 60 € zuzkan, 45 €-ko jorts bat erosi du, eta gurtz zati zati zati hantur bat erosi du. Zentbat diru eman du Markelak arnatz?

5 Gorkak 75 argazki dauka album baten, eta amabak, argazki kopuru hirukoitza dauka baki album baten. Zentbat argazki gehiago dauka Gorkak amabak baino?

6 ASMATU! Eskatu kasideta bati problema bat arnatzeko eta ebazti orratia horietako lau urrats jarraitu.

Eskuineko orrialdean, problemak hobeto ebazteko estrategiak ikasiko dituzu.

Unitateko jardueren bi orrialde daude:

Jarduera asko aurkituko dituzu, eta horri esker, unitatean ikasitakoa landu ahal izango duzu.

JARDUERA

1 HIZTETGOKIA. Azaldu nola irakurtzen diren zortzi zifra zenbakia. Erabili adibide bat, laguntzeko.

2 Idatziz zenbakia txikiaren eta idatziz nola irakurtzen diren.

- 9 milioiko ditu.
- 4 milioiko ditu.
- 2 hamar milioiko ditu.
- 8 ehun milioiko ditu.
- 6 ehun milioiko ditu.

4.560.050 9.076.120
23.400.107 85.085.076
657.321.000 840.890.040

3 Idatziz zifraz.

- Bederatzi milioi eta bostehun eta sei mila.
- Lau milioi hiru mila eta bost.
- Zazpi milioi eta laurogei.
- Hamabiru milioi ehun eta zazpi mila eta bost.
- Laurogei milioi bederati mila eta seihun.
- Ehun eta hamabi milioi zortzi mila eta laurogei eta lau.
- Seihun eta hogei milioi zazpi mila hiruhun eta hirurogei hamar.

4 Deskonposatu zenbakia.

- 1.230.084 ► 45.089.060
- 7.095.300 ► 268.099.004
- 15.845.708 ► 715.008.389

5 Idatziz murgituko zifra bakoitzaren balioa bakoitza.

- 7.095.136 ► 10.205.181
- 9.157.890 ► 100.014.008
- 19.001.107 ► 720.000.870

6 Kopiatu eta osatu zure koadernoan.

Aurkaria	Zentbat	Hurungia
1.999.999		
4.500.099		
58.298.000		
123.000.999		
809.999.999		

7 Ordenatu, ikur egokia erabiliz.

Tekienetik handiena: 3.890.900, 23.890.900, 23.980.000, 32.000.000

Handienetik txikiena: 456.000.900, 69.999.999, 465.000.900, 456.100.000

8 Hurbildu zenbakia.

Unitate-mila handienara	Unitate-mila txikienara
6.789.402	874.691
2.900.050	342.784
73.900.290	8.947.642
91.500.189	8.718.620

9 Zer zenbaki du? Pentatze eta idatziz.

- Zapi zifra zenbaki handienara.
- Teki zifra zenbaki txikienara.
- Teki zifra zenbaki txikienara, bakar bat ere erabili gabe, eta dauen zenbaki handienara.
- Milikoiaren hurbildua 6.000.000 den zapi zifra zenbaki handienara.

Problemak

1 Deskribatu telefono-zenbaki bakoitza hark soilik berton duen esaldi baten.

619 345 000 949 547 301
923 800 736 968 543 754
923 231 200 949 748 279

2 Irakurri albisteak eta erantzu zure koadernoan.

LARANJAK ATZERRIRA

2011. urtean, laranjen esportazioa bultzatu egin zen aurreko urtearekin alderatuz gero. Taulan, Espainiak urte hartan zuzen esportatutako esportatzaile zuzenak ikusgarriak ageri dira.

Herrialdea	Kilogramak
Frantzia	579.060.035
Alemania	550.830.431
Britania Handia	204.589.214
Hortabakak	187.718.580

- Zentbat kilogramo laranja esportatu ziren Britania Handira?
- Zer herrialdeak esportatu ziren kilo gehien? Eta gutxi? Zentbat zen zien?
- Zer herrialdeak esportatu ziren 500 milioi kilo laranja baino gehiago?
- Zer herrialdeak esportatu ziren 200 milioi kilo laranja inguru?

Erakutsi zure gaitasuna

67

Pentatu sei zifra zenbaki bakoitzaren. Zen diru ugariak: 6z hasten diren zenbakia edo 7z amaitzen direnak? Gaurera geratzen al da zapi zifra zenbaki bakoitzaren?

Erakutsi zure gaitasuna izeneko atalean, problemak eta enigmak aurkituko dituzu. Erronka galanta!

Bukatzeko, Amaierako ataza eta Berrikusketa:

Amaierako ataza atalean, benetako egoera batean erabili beharko duzu ikasitako guztia.

EGITEN JAKIN

1 Datu historikoak aztertzea

Erromatar Inperioren garapen, Iberiar penintsula osoa biztanleria 4.000.000 pertsona geroa zen. Geroak herrialdeak bizi ziren aurretik, 1.500.000 inguru hiriten bizi ziren. Hiri asko erromatarrek benetako funtzioak zituzten, eta horietako batzuk existitzen dira oraindik, gaur egun ere.

Hiri garrantzitsuenak Emerita Augusta zen, gaur egun Mérida, baina orain ere bertan 36.000 pertsona bizi dira.

Gainera, 15.000 biztanleko gora zuten beste hiru hiri ere baziren.

2 Irakurri testua eta ebazi.

- Zenbakia zen biztanleria Erromatar Inperioren garapen? Idatziz zenbakia leku eta deskonposatu.
- Zentbat pertsona bizi ziren herrialdean?
- Zentbat biztanle zuden gurtza lau hiri inguruetan?
- Kalkulatu beste hiritako biztanleen gutxiengoak.

3 Erreparatu hiritako batak zer urtean fundatu zituzten erakutsi den taulan. Alderatz zer mendetan fundatu zuten hiri bakoitza.

1000. urtean aurreko urte bat zer mendetako den jakiteko, erreparatu erakutsi den taula.

4 LAN KOOPERATIBOA. Aurkera goiko hiritako bat eta bilerak gaur egun biztanleriaren buruko informazioa zure ikaslearen baten, eta amaitu zentbat hazi den erromatarren garapen.

HONAINOKO BERRIKUSKETA

1 Idatziz zenbaki bakoitza idatziz nola irakurtzen diren.

- 1 milio 6 milio
- 4 milio 8 milio
- 2 H. milio 5 H. milio
- 3 H. milio 7 H. milio
- 3 E. milio 7 E. milio
- 5 E. milio 9 E. milio

2 Deskonposatu zenbaki bakoitza.

204.907 ► 430.820 ► 510.808
719.065 ► 809.056 ► 931.007

3 Idatziz leku edo zifraz.

275.300 ► 809.090 ► 660.025
718.010 ► 890.809 ► 925.016

- Bostehun eta hamabost mila ehun eta hogei.
- Laurohun eta hogei hamar mila eta bost.
- Zazpik eta biderlatz mila eta zortzi.
- Bederatzi mila eta bost.
- Bostehun eta bost mila ehun eta bost.

4 Egin biderkatu.

- 2.455 × 6 ► 7.397 × 8
- 5.231 × 7 ► 8.548 × 39

5 Egin zatiketa.

- 4.254 : 6 ► 7.937 : 9
- 6.459 : 8 ► 8.541 : 9

6 Ordenatu multzo bakoitzeko zenbakia. Erabili kasu bakoitzaren dagoen ikurra.

Tekienetik handienara: 630.870, 603.780, 678.300, 360.087

Handienetik txikienara: 345.610, 365.401, 345.510, 356.140

7 Kalkulatu.

- 7.456 + 1.785 ► 1.654 + 2.632 + 531
- 44.735 + 8.245 ► 345 + 4.257 + 35.925
- 3.712 - 985 ► 23.104 - 9.976
- 82.903 - 6.598 ► 90.010 - 6.874

8 Egin biderkatu.

- 2.455 × 6 ► 7.397 × 8
- 5.231 × 7 ► 8.548 × 39

9 Egin zatiketa.

- 4.254 : 6 ► 7.937 : 9
- 6.459 : 8 ► 8.541 : 9

10 Otsak 3 eskutxak berrin eta bihurtu berrin bat erosi du. Gurtza 60 €-ko erosi du. Zentbat ordaindu du eskutxak bakoitza?

11 Narek gileoen 3 zoro erosi ditu. Urtebetez osatuko. Zoro bakoitza 18 gileo guri eta gileo guri bako 7 gileo berrin gehiago ditu. Zentbat gileo erosi du gurtza? Zentbat gileo guri gurtzaren erosi du gileo berrin bako?

12 Ibonak 125 kilo sagar jaso ditu bere barazketan. Azaldu ingun bati 10 kilo sagar erosi. Azaldu, eta gaurerako sagarak 5 kilo zozten gorte ditu. Zentbat zoro bete ditu?

13 Loniak 176 € dauka. Koldok, 30 €-ko erosi du. Zentbat diru dauka hiru urtean?

Berrikusketari esker, edukirik garrantzitsuenak gogoratu ahal izango dituzu, ikasturtean segurtasunez aurrera egiteko.



Nolakoa zen Ingalaterra 1086. urtean?

1086. urtean, Gilen I.a Ingalaterrako erregeak horren antzeko galdera bat egin zuen. Beste herrialde batetik iritsi zen bere erreinura eta hobeto ezagutzeko beharra zeukan.

Horretarako, ideia bat izan zuen: erreinuko hainbat lekutara pertsonak bidali zituen, idatziz jaso zitzaten jendea bizi zen lekuak, pertsona bakoitzaren ondasunak eta haien balioak.

Emaitza *Domesday* izeneko liburua izan zen. Bi atal zituen, 413 eta 475 orrialdekoak, hurrenez hurren. Liburuan 13.418 biztanlegune ageri ziren, bai eta datu bitxiak ere; esaterako, Essex hirian 13.171 txerri eta 50.000 ardi zeudela, eta Suffolk hirian, 4.343 ahuntz eta soilik 2 asto.





Irakurri, ulertu eta arrazoitu

- 1 Erreparatu zer urtetan eman zuen Gilen I.a erregeak ikerketa egiteko agindua. Zer unitate-mailatan dago 0 zifra? Zer esanahi du zifra horrek?
- 2 **AHOZ ADIERAZI.** Deskribatu *Domesday* liburuaren bi atalen orrialde kopuruen antzekotasunak eta desberdintasunak. Erabili honelako hitzak: *ehunekoak*, *hamarrekoak* eta *batekoak*.
- 3 Urte hartako Ingalaterrako biztanleguneen kopuruan bi aldiz agertzen da 1 zifra; bi zifrek balio bera al dute? Zer balio du bakoitzak? Zer balio dute Suffolk hiriko ahuntz kopuruan ageri diren 4 eta 3 zifrek?
- 4 Garai hartan, Ingalaterran 2 milioi pertsona inguru egon zitezkeela uste da. Eta hiruburuan, Londresen, 10 bat mila biztanle. Zer esanahi dute *inguru* eta *bat adierazpenek*?

EGITEN JAKIN



AMAIERAKO ATAZA



Datu historikoak aztertzea

Unitatearen amaieran, erromatarren garaiko zenbait datu historiko aztertzeko gai zarela erakutsiko duzu.

Aurrez, zazpi zifrako zenbakiak eta horiek baino handiagoak landuko dituzu, eta zifra ugariko zenbakien hurbilketak egiten ere ikasiko duzu.



Zer dakizu honetaz?



Unitate-mailak

EM	HM	M	E	H	B
----	----	---	---	---	---

Bateko 1 ► 1 B

Hamarreko 1 ► 1 H = 10 B

Ehuneko 1 ► 1 E = 100 B

Milako 1 ► 1 M = 1.000 B

H. milako 1 ► 1 HM = 10.000 B

E. milako 1 ► 1 EM = 100.000 B

- 1 Zenbat bateko dira? Idatzi.

4 E	7 HM	2 EM
5 M	9 H	4 M

Zenbakiak deskonposatzea eta irakurtzea

254.863 ►

EM	HM	M	E	H	B
2	5	4	8	6	3


$$254.863 = 2 \text{ EM} + 5 \text{ HM} + 4 \text{ M} + 8 \text{ E} + 6 \text{ H} + 3 \text{ B} = 200.000 + 50.000 + 4.000 + 800 + 60 + 3$$

254.863 berrehun eta berrogeita hamalau mila zortziehun eta hirurogeita hiru irakurtzen da.

- 2 Deskonposatu zenbaki bakoitza eta idatzi nola irakurtzen den.

123.876	531.025	720.420
409.248	608.398	910.900

Milioia. Zazpi zifrako zenbakiak



Iaz paper ugari birziklatu zen hirian. Hain zuzen, 100.000 kg-ko 10 edukiontzi bildu ziren.

10 ehun milako = Milioiko 1

Milioiko 1 = 1.000.000 B

1.000.000 **milioi bat** irakurtzen da.

10 EM = Milioiko 1 = 1.000.000 B

Gainera, 1.234.690 kg beira bildu ziren.

Milioi-koak	EM	HM	M	E	H	B
1	2	3	4	6	9	0

$1.234.690 = \text{Milioiko } 1 + 2 \text{ EM} + 3 \text{ HM} + 4 \text{ M} + 6 \text{ E} + 9 \text{ H}$

$1.234.690 = 1.000.000 + 200.000 + 30.000 + 4.000 + 600 + 90$

Milioi bat berrehun eta hogeita hamalau mila seihun eta laurogeita hamar irakurtzen da.



Zazpi zifrako zenbakiak milioikoak, ehun milakoak, hamar milakoak, milakoak, ehunekoak, hamarrekoak eta batekoak izaten dituzte.

1 Osatu zure koadernoan, adibidean bezala.

ADIBIDEA 3 milioiko = 30 EM = 3.000.000 B ► Hiru milioi irakurtzen da.

- Milioiko 1
- 7 milioiko
- 2 milioiko
- 8 milioiko
- 4 milioiko
- 5 milioiko
- 9 milioiko
- 6 milioiko

2 Deskonposatu zenbakiak zure koadernoan. Erabili taula, laguntzeko.

Milioi-koak	EM	HM	M	E	H	B

- 1.757.056
- 2.107.420
- 4.034.007
- 5.604.020
- 7.910.300
- 8.420.129

ADIBIDEA $1.757.056 = \text{Milioiko } 1 + \dots = 1.000.000 + \dots$

3 Idatzi zure koadernoan zenbaki bakoitzaren aurrekoa eta hurrengoa.

- 999.999
- 7.898.899
- 3.491.039
- 8.675.990
- 1.000.000
- 6.999.999
- 5.002.199
- 4.203.298

4 Osatu taula zure koadernoan.

Zenbakia	Nola irakurtzen den
2.980.016	
3.075.308	
5.809.950	
	Zazpi milioi berrehun eta lau mila eta bederatzi
	Bi milioi ehun eta laurogeita hamar mila eta hamar
	Bederatzi milioi bostehun mila eta hamasei

BA OTE DAKIZU?


Zer zenbaki da 9.999.999ren hurrengoa?

5 Alderatu zenbakiak eta idatzi dagokion ikurra.

- 3.457.689 eta 3.460.004 ■ 6.189.301 eta 6.200.147
- 4.008.512 eta 4.007.999 ■ 7.125.989 eta 7.125.994

Problemak

6 Erreparatu liburu salduenen zerrendari eta erantzun zenbakiak zifraz eta letraz idatziz.

 Trumoa 1.100.000	 Ilargiak 1.000.900	 Mapatxea 995.000	 Sumendia 1.900.000
---	---	--	---

- *Trumoa* liburuaren zenbat ale saldu dira? Eta *Ilargiak* liburuarenak?
- Zein liburu saldu da gehien, *Mapatxea* edo *Sumendia*? Zenbat ale saldu dira bakoitzetik?
- Zein izan da gehien saldu den liburua?

Buruzko kalkulua

Batu hamarrekoak, ehunekoak eta milakoak

$$3.600 + 500 = 4.100$$

$$200 + 600$$

$$470 + 20$$

$$3.600 + 200$$

$$800 + 400$$

$$360 + 30$$

$$4.300 + 500$$

$$3.000 + 6.000$$

$$580 + 60$$

$$2.800 + 600$$

$$7.000 + 5.000$$

$$690 + 40$$

$$6.700 + 800$$

Zazpi zifra baino gehiagoko zenbakiak

Iaz berrogeita hamazazpi milioi (57.000.000) turista baino gehiago izan ziren gure herrialdean.
57.000.000 zenbakia zortzi zifrako zenbaki bat da.
Erreparatu milioikoa baino handiagoak diren unitateei.
Maila bateko hamar unitatek hurrengo maila handiagoko unitate bat osatzen dute.



Ehun milioikoak	Hamar milioikoak	Milioikoak	EM	HM	M	E	H	B
100.000.000 B	10.000.000 B	1.000.000 B						

10 milioiko = H. milioiko 1 = 10.000.000 B ► 10.000.000 hamar milioi irakurtzen da.
10 H. milioiko = E. milioiko 1 = 100.000.000 B ► 100.000.000 ehun milioi irakurtzen da.

H. milioiko 1 = 10 milioiko = 10.000.000 B ► 10.000.000 hamar milioi irakurtzen da.
E. milioiko 1 = 10 H. milioiko = 100.000.000 B ► 100.000.000 ehun milioi irakurtzen da.


1 Idatzi zenbat bateko dituen zenbaki bakoitzak eta nola irakurtzen den.

- 5 H. milioiko ■ 7 H. milioiko ■ 2 E. milioiko ■ 4 E. milioiko
- 6 H. milioiko ■ 9 H. milioiko ■ 7 E. milioiko ■ 8 E. milioiko

2 Deskonposatu zenbaki bakoitza eta idatzi nola irakurtzen den.

HONETARA EGIN

$$104.032.701 = \text{E. milioiko 1} + 4 \text{ milioiko} + 3 \text{ HM} + 2 \text{ M} + 7 \text{ E} + 1 \text{ B} = \\ = 100.000.000 + 4.000.000 + 30.000 + 2.000 + 700 + 1$$



- 51.056.420 ■ 83.702.216 ■ 615.090.083 ■ 400.060.900
- 34.609.803 ■ 60.007.841 ■ 307.002.060 ■ 870.123.609

3 Idatzi zure koadernoan 2. jarduerako zenbaki bakoitzean zer balio duen 6 zifrak, batekotan.

4 Idatzi zure koadernoan zenbaki bakoitzaren aurrekoa eta hurrengoa.

- 29.999.999 ■ 67.308.699 ■ 134.499.899 ■ 899.609.990

5 Osatu taula zure koadernoan.

Zenbakia	Nola irakurtzen den
25.789.060	
	Berrogeita sei milioi zazpiehun mila eta berrehun
97.583.715	
	Ehun eta hogeit hamar milioi bostehun mila ehun eta hamar
734.098.365	
	Bederatziehun eta laurogei milioi eta laurehun

BA OTE DAKIZU?

Bilioi bat milioi bat milioi da.
Nola idatziko zenuke?

6 Alderatu, ikur egokia idatziz.

- 45.000.704 eta 45.001.003 ■ 803.345.289 eta 802.946.587
- 30.235.890 eta 30.234.899 ■ 599.003.124 eta 600.001.123

Problemak

7 Irakurri eta idatzi erantzunak letraz.

Hona hemen iaz gehien ikusi ziren lau filmak eta bakoitzak bildutako dirua.

- 1.a *Pinguinoen basamortua*: 50.450.900 €
- 2.a *Putzuaren hondoko altxorra*: 39.890.500 €
- 3.a *Mamua*: 29.560.380 €
- 4.a *Ostadar grisa*: 21.400.860 €

- Zenbat diru bildu zuen gehien ikusi zen filmak? Eta gutxien ikusi zenak?
- Zenbat diru bildu zuen *Mamua* filmak?
- Zer filmek bildu zituen ia berrogei milioi euro?



Arrazoiketa

Irakurri, aurkitu zenbakia eta idatzi zure koadernoan.

- Zortzi zifrako zenbaki bat da eta zifra guztiak desberdinak dira.
- Zifra guztien batura 36 da.
- Zifrak ondoz ondokoak dira.


Burgoitian egindako azken erroldaren arabera, 362.094 biztanle zituen. Zenbat pertsona bizi ziren, gutxi gorabehera, Burgoitian?



Hurbildu 362.094 ehun milakoetara

1. Bilatu zer ehun milakoren artean dagoen zenbakia.

362.094 zenbakia 300.000 eta 400.000ren artean dago




2. Alderatu aurreko mailako zifra (hamar milakoena) 5ekin.

362.094 ► 6 > 5 → Aukeratu ehun milako handiena: 400.000.

362.094tik hurbilen dagoen ehun milakoa 400.000 da.

Burgoitian 400.000 pertsona bizi ziren, gutxi gorabehera.

1 Erreparatu zuzenari eta hurbildu zenbaki bakoitza ehun milakoetara.



- | | | | |
|-----------|-----------|-----------|-----------|
| ■ 194.075 | ■ 241.874 | ■ 427.023 | ■ 636.000 |
| ■ 215.999 | ■ 381.134 | ■ 596.700 | ■ 910.000 |

2 Hurbildu zenbaki bakoitza dagokion unitate-mailara.

GOGOAN IZAN

Kontuan hartu zenbat zifra dituen zenbakiak eta alderatu aurreko mailako zifra 5ekin.

- | | |
|-------------|--------------|
| ■ 2.342.981 | ■ 37.094.657 |
| ■ 6.902.147 | ■ 41.621.089 |
| ■ 7.840.300 | ■ 62.750.040 |
| ■ 9.256.000 | ■ 89.100.000 |

3 Pentsatu eta idatzi bi zenbaki kasu bakoitzean.

- Bost zifra ditu eta hamar milakoetara hurbilduta 90.000 da.
- Sei zifra ditu eta ehun milakoetara hurbilduta 600.000 da.
- Zazpi zifra ditu eta milioikoetara hurbilduta 7.000.000 da.
- Zortzi zifra ditu eta hamar milioikoetara hurbilduta 20.000.000 da.

4 Hurbildu zenbaki bakoitza bere maila baino txikiagoak diren guztietara.

HONETARA EGIN

Hurbildu 426.738 bere maila baino maila txikiagoetara

Hurbilketa bakoitzean, alderatu aurreko mailako zifra 5ekin.

Hamar milakoetara: $6 > 5 \rightarrow 430.000$

Milakoetara: $7 > 5 \rightarrow 427.000$

Ehunekoetara: $3 < 5 \rightarrow 426.700$

Hamarrekoetara: $8 > 5 \rightarrow 426.740$

BA OTE DAKIZU?

Etetea hurbiltzeko beste modu bat da; bilatu zer esanahi duen. Zer desberdintasun du orain arte erabilitako hurbilketarekin?

- 234.076
- 8.608.749
- 26.892.031
- 897.342
- 4.291.347
- 78.657.986

Problemak



5 Idatzi testu bat, taulako zenbakiak hurbilduta, horma-irudia osatzeko.

Herrialdea	Biztanle kopurua
Espainia	47.265.321
Alemania	80.219.695
Indonesia	237.556.363
Estatu Batuak	316.017.000

Guztiontzako planeta

Zer mailalara hurbildu duzu zenbaki bakoitza?
Azaldu zergatik egin duzun horrela.

Buruzko kalkulua

Egin hamarrekoen, ehunekoen eta milakoen kenketak

$$4.100 - 800 = 3.300$$

$$700 - 400$$

$$640 - 30$$

$$4.700 - 200$$

$$800 - 500$$

$$790 - 50$$

$$8.800 - 600$$

$$9.000 - 6.000$$

$$820 - 40$$

$$3.200 - 900$$

$$5.000 - 3.000$$

$$610 - 90$$

$$7.300 - 800$$

Problemak ebaztea

Enuntziatua eta ebazpena lotzea

Zer ebazpen dagokio problema bakoitzari? Idatzi emaitza.

Joni 19 kromo falta zaizkio Koldok halako hiru kromo izateko. Koldok 20 kromo ditu. Zenbat kromo ditu Jonek?

A

1

$$20 + 19 = 39$$
$$3 \times 39 = 117$$

Maiderek 20 pastelesko 3 erretilu zituen. Atzo beste 19 pastel prestatu zituen. Zenbat pastel ditu orain?

B

2

$$3 \times 20 = 60$$
$$60 + 19 = 79$$

Landerrek 20 € dauzka eta anaiak 19 €. Arrebak bi anaien artean daukaten diruaren hirukoitza dauka. Zenbat euro dauzka arrebak?

C

3

$$3 \times 20 = 60$$
$$60 - 19 = 41$$



► A problema ebazteko, 3. txarteleko kalkuluak egin behar dira.

Emaitza: Jonek 41 kromo ditu.

Idatzi ebazpena zure koadernoan, eta B eta C problemen emaitzak ere bai.

1 Lotu problema bakoitza bere emaitzarekin zure koadernoan eta idatzi emaitza.

Anderrek 84 arrosoz zeuzkan. Izurri baten eraginez, 26 moztu zituen, eta ondoren, 35 landatu. Zenbat arrosoz dauzka orain?

A

1

$$26 + 35 = 61$$
$$84 - 61 = 23$$

Elkarte batek 84 bazkide ditu. 26 gizonak dira, 35 emakumeak eta gainerakoak haurrak. Zenbat bazkide dira haurrak?

B

2

$$84 - 26 = 58$$
$$58 + 35 = 93$$

Dendan, litxarrerien 84 zorro daude, eta bakoitzak 35 gozoki eta 26 hodei ditu. Zenbat gozoki gehiago dago hodei baino guztira?

C

3

$$35 - 26 = 9$$
$$84 \times 9 = 756$$

Problema bat ebazteko urratsak

Zirkuko funtzio baten estreinaldirako, 1.500 sarrera jarri dituzte salgai. Goizean 389 sarrera saldu dituzte, eta arratsaldean, 450. Zenbat sarrera geratzen dira saltzeko?

► Problema bat ebazteko, jarraitu urrats hauei:

1. Ulertu.

Galdera ► Zenbat sarrera geratzen dira saltzeko?

Datuak ► 1.500 sarrera jarri dituzte salgai.
Goizean 389 sarrera saldu dituzte,
eta arratsaldean, 450.

2. Pentsatu zer egin behar den.

1. Guztira zenbat sarrera saldu diren kalkulatu behar da. Batu goizean saldutako sarrerak eta arratsaldean saldutakoak.
2. Kalkulatu zenbat sarrera geratzen diren saltzeko. Kendu sarrera guztiei saldutako sarrerak.

3. Kalkulatu.

$$1. \quad 389 + 450 = 839 \qquad 2. \quad 1.500 - 839 = 661$$

Emaitza: 661 sarrera geratzen dira saltzeko.

4. Egiaztatu.

Berrikusi egindako urrats eta eragiketa guztiak.



Ebatzi problemak, urrats egokiei jarraituz.

- 1 Biltegi batean 8na maleta dituzten 25 edukiontzi eta 12 maleta dituen edukiontzi bat daude. Zenbat maleta daude guztira biltegian?
- 2 Ikerren loradendan 36na krabelin zituzten lau saski zeuden. Ikerrek 13 krabelin bota ditu, hondatuta zeudelako. Zenbat krabelin geratzen dira?
- 3 Mirenek 168 kg madari sartu ditu 2 kg-ko zorroetan. Ondoren, zorroak kutxetan sartu ditu, kutxa bakoitzean 6 zorro jarrita. Zenbat kutxa bete ditu?


- 4 Markelek 60 € zeuzkan. 45 €-ko jertse bat erosi du, eta geratu zaion diruaren heren bat arrebari eman dio. Zenbat diru eman dio Markelek arrebari?
- 5 Gorkak 75 argazki dauzka album batean, eta arrebak, argazki kopuru hirukoitza dauka beste album batean. Zenbat argazki gutxiago dauzka Gorkak arrebak baino?
- 6 **ASMATU.** Eskatu ikaskide bati problema bat asmatzeko eta ebatzi orrialde honetako lau urratsei jarraituz.



1 HIZTEGITXOA. Azaldu nola irakurtzen diren zortzi zifrako zenbakiak. Erabili adibide bat, laguntzeko.

2 Bilatu zenbakiak txartelean eta idatzi nola irakurtzen diren.

- 9 milioiko ditu.
- 4 milioiko ditu.
- 2 hamar milioiko ditu.
- 8 hamar milioiko ditu.
- 8 ehun milioiko ditu.
- 6 ehun milioiko ditu.



3 Idatzi zifraz.

- Bederatzi milioi eta bostehun eta sei mila.
- Lau milioi hiru mila eta bost.
- Zazpi milioi eta laurogei.
- Hamahiru milioi ehun eta zazpi mila eta bost.
- Laurogei milioi bederatzi mila eta seiehun.
- Ehun eta hamabi milioi zortziehun mila laurehun eta lau.
- Seiehun eta hoge milioi zazpi mila hirurehun eta hirurogeita hamaika.

4 Deskonposatu zenbakiak.

- 1.230.084
- 45.089.060
- 7.095.300
- 268.095.004
- 15.845.708
- 715.008.389

5 Idatzi margotutako zifra bakoitzaren balioa batekotan.

- 7.209.136
- 60.205.481
- 9.257.890
- 309.034.006
- 29.801.107
- 720.006.870

6 Kopiatu eta osatu zure koadernoan.

Aurrekoa	Zenbakia	Hurrengoa
	1.999.999	
	4.500.099	
	56.299.000	
	123.000.999	
	899.999.999	

7 Ordenatu, ikur egokia erabiliz.

Txikienetik handienera

3.890.900
23.890.900
23.980.000
32.000.000

Handienetik txikienera

456.000.900
69.999.999
465.000.900
456.100.000

8 Hurbildu zenbakiak.

Unitate-maila handienara

6.789.402
2.900.350
73.900.290
91.500.189

Unitate-maila txikienera


874.691
342.784
6.947.642
8.718.620

9 Zer zenbaki da? Pentsatu eta idatzi.

- Zazpi zifrako zenbaki handiena.
- Zortzi zifrako zenbaki txikiena.
- 1etik 9ra arteko zifrekin, bakar bat ere errepikatu gabe, osa daitekeen zenbakirik handiena.
- Milioikoetara hurbilduta 6.000.000 den zazpi zifrako zenbakirik handiena.

Problemak

- ★ 10 Deskribatu telefono-zenbaki bakoitza hark soilik betetzen duen esaldi batekin.



- 11 Irakurri testua eta berriatzi hautematen dituzun akatsak zuzenduta.

NireNews albisteei buruzko webguneak 34.650.000 bisita izan zituen, 34 milioi gutxi gorabehera; eta haren lehiakide AllNews-ek, berriz, 40.325.000 bisita izan zituen, 41 milioi gutxi gorabehera.

- ★ 12 Irakurri albistea eta erantzun zure koadernoan.

LARANJAK ATZERRIRA

2011. urtean, laranjen esportazioa txikitu egin zen aurreko urtearekin alderatuz gero. Taulan, Espainiak urte hartan zenbait herrialdetara esportatu zituen kilogramoak ageri dira.



Herrialdea	Kilogramoak
Frantzia	579.080.035
Alemania	550.830.431
Britainia Handia	204.589.214
Herbehereak	187.718.580



- Zenbat kilogramo laranja esportatu ziren Britainia Handira?
- Zer herrialdetara esportatu ziren kilo gehien? Eta gutxien? Zenbat izan ziren?
- Zer herrialdetara esportatu ziren 500 milioi kilo laranja baino gehiago?
- Zer herrialdetara esportatu ziren 200 milioi kilo laranja inguru?

Erakutsi zure gaitasuna

- ★ 13 Pentsatu sei zifrako zenbaki palindromoetan. Zein dira ugarietak: 6z hasten diren zenbakiak edo 7z amaitzen direnak? Gauza bera gertatzen al da zazpi zifrako zenbaki palindromoekin?

6 7



Datu historikoak aztertzea



Erromatar Inperioaren garaian, Iberiar penintsula osoko biztanleria 4.000.000 pertsonatik gorakoa zen.

Gehienak herrixketan bizi ziren arren, 1.100.000 inguru hirietan bizi ziren.

Hiri asko erromatarrek beraiek fundatu zituzten, eta horietako batzuk existitzen dira oraindik, gaur egun ere.

Hiri garrantzitsuena Emerita Augusta zen, gaur egungo Mérida, hain zuzen ere; bertan 30.000 pertsonatik gora bizi ziren.

Gainera, 15.000 biztanletik gora zituzten beste hiru hiri ere bazeuden.




Hiria	Urtea
Emerita Augusta (Mérida)	K.a. 25
Corduba (Kordoba)	K.a. 152
Malaca (Málaga)	K.a. 770
Tarraco (Tarragona)	K.a. 218
Caesar Augusta (Zaragoza)	K.a. 14
Legio (León)	K.o. 68


1 Irakurri testua eta ebatzi.

- Zenbatekoa zen biztanleria Erromatar Inperioaren garaian? Idatzi zenbakia letraz eta deskonposatu.
- Zenbat pertsona bizi ziren herrixketan?
- Zenbat biztanle zeuden guztira lau hiri nagusien artean?
- Kalkulatu beste hirietako biztanleen guztizko kopurua.

2 Erreparatu hirietako batzuk zer urtetan fundatu zituzten erakusten duen taulari. Adierazi zer mendetan fundatu zuten hiri bakoitza.



- 3 LAN KOOPERATIBOA.** Aukeratu goiko hirietako bat eta bilatu gaur egungo biztanleriari buruzko informazioa zure ikaskidearekin batera, eta arrazoitu zenbat hazi den erromatarren garaitik.



1 Idatzi zenbat bateko diren eta nola irakurtzen diren.

- 1 milako 6 milako
4 milako 8 milako
- 2 H. milako 5 H. milako
3 H. milako 7 H. milako
- 3 E. milako 7 E. milako
5 E. milako 9 E. milako

2 Deskonposatu zenbaki bakoitza.

- 204.907 ■ 430.620 ■ 510.608
- 719.065 ■ 809.056 ■ 931.007

3 Idatzi letraz edo zifraz.

- 376.300 ■ 509.090 ■ 660.025
- 718.010 ■ 890.809 ■ 925.016
- Berrehun eta hamabost mila ehun eta hogeia.
- Laurehun eta hogeita hamabi mila eta bost.
- Zazpiehun eta bederatzi mila eta zortziehun.
- Bederatziehun eta berrogei mila ehun eta bi.
- Bostehun mila eta sei.

4 Ordenatu multzo bakoitzeko zenbakiak. Erabili kasu bakoitzean dagokion ikurra.

Txikienetik handienera

630.870, 603.780, 678.300, 360.087

Handienetik txikienera

345.610, 365.401, 346.510, 356.140

5 Kalkulatu.

- $7.456 + 1.765$ ■ $1.654 + 2.632 + 531$
- $64.736 + 8.246$ ■ $345 + 4.267 + 35.925$
- $3.712 - 965$ ■ $23.104 - 9.876$
- $82.903 - 6.598$ ■ $90.010 - 6.874$

6 Egin biderketak.

- 2.453×6 ■ 7.369×28
- 5.231×7 ■ 8.548×39

7 Egin zatiketak.

- $4.284 : 6$ ■ $7.937 : 7$
- $6.459 : 8$ ■ $8.541 : 9$

Problemak

8 Kattinek 1.200 € zeuzkan aurreztuta. Gaur, 295 €-ko inprimagailu bat erosi du eta 315 €-ko faktura bat ordaindu du. Zenbat diru geratzen zaio?

9 Naroak globoen 3 zorro erosi ditu, urtebetetzea ospatzeko. Zorro bakoitzak 18 globo gorri eta globo gorri baino 7 globo berde gehiago ditu. Zenbat globo erosi ditu guztira? Zenbat globo gorri gutxiago erosi ditu globo berde baino?

10 Ibonek 125 kilo sagar jaso ditu bere baratzetik. Auzoko lagun bati 10 kilo sagar eman dizkio, eta gainerako sagarrak 5 kiloko zorroetan gorde ditu. Zenbat zorro bete ditu?

11 Olatzek 3 eskuoihal berdin eta bainu-txabusina bat erosi ditu. Guztia 60 € ordaindu du. Zenbat ordaindu du eskuoihal bakoitza?



12 Lorek 176 € dauzka; Koldok, 50 €; eta Izaskunek, Loreren erdia. Zenbat diru daukate hiruren artean?